

Euskomedia Mintzo: leyendo o escuchando

2008 urtarrila/enero/janvier
Nº 185 zenb.

Euskomedia Fundazioak sistema berritzaile bat jarri du bere datu base handian dauzkan testu guztiak entzun ahal izateko

Euskomedia vuelve a ser pionera en la aplicación de nuevas funcionalidades en la web para facilitar el acceso del mayor número de usuarios a su base de datos.

Si en 2003 implantó una novedosa aplicación para que todos los artículos del semanario *Eusko-news&Media* puedan escucharse en euskera, castellano o inglés, ahora, gracias al sistema Euskomedia Mintzo es posible acceder a la versión de audio de los contenidos de todas las bases de datos existentes en el Sistema de Información Euskomedia. Con estas prestaciones, Euskomedia se fija como objetivo ofrecer unos servicios al alcance de todos los sectores de la sociedad, en la perspectiva de ir dotando a la red de mayores y mejores contenidos sobre ciencia y cultura vasca.

Euskomedia Mintzo es un proyecto tecnológico desarrollado por la Fundación Euskomedia con financiación del Departamento de Industria del Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Prestaciones

El sistema Euskomedia Mintzo hace posible que el audio se genere al vuelo bajo demanda del usuario, no es necesaria la intervención de los gestores del sitio web para que un usuario pueda acceder o disponer de la versión de audio de cualquier contenido existente en la web.

Ofrecer los documentos en texto y en audio permite a los gestores de una web garantizar a las personas con deficiencias visuales el acceso a su contenido. Al mismo tiempo, las personas sin ninguna deficiencia visual pero que se encuentren en determinados entornos desfavorables para la lectura (especialmente en los que se utilicen conexiones inalámbricas con aparatos de pantallas reducidas) tendrán la posibilidad de acceder a la información sin que las dificultades de lectura supongan un obstáculo insalvable.

Por otra parte, la popularización de los aparatos de audio conectables al ordenador (conocidos como mp3) permite a los usuarios la des-

carga de ficheros de sonido para su posterior audición en la lengua original del texto. La web cada vez se considera más como un entorno accesible en cualquier circunstancia. Estos aparatos permiten transportar audio de una forma muy sencilla y acceder al mismo sin estar condicionado por disponer o no de conexión a la red. De esta forma, es posible que los usuarios dispongan de contenidos web en cualquier momento con aparatos muy populares, sencillos de manejar y baratos.

10 ans de 'Euskonews & Media'

Euskonews & Media est la publication électronique hebdomadaire via Internet sur la science et la culture basque qui est publiée depuis 1998.

Eusko Ikaskuntza, consciente de l'importance des nouveaux supports de communication, encourage cette publication ouvrant ainsi une fenêtre au monde entier pour montrer, avec un langage agile et simple, la réalité scientifique basque. Elle est publiée tous les vendredis gratuitement aux abonnés par courrier électronique.

Jusqu'à aujourd'hui près de 425 numéros ont été publiés. Il est prévu de réaliser cette année diverses activités pour célébrer ces dix ans de *Euskonews & Media*.



Batzar nagusiak onartu egin zuen Eusko Ikaskuntzaren Estatutuen erreforma

Abanduaren 15ean Eusko Ikaskuntzaren ez ohiko Batzar Nagusia egin zen Donostian, batzar hori Elkartearen Estatutuei egin beharreko zuzenketak eztabaidatu eta botoetara jartzeko deitua izanik. Elkartei buruzko azken lege aldaketek eta gobernu organoek beren jarduerara modu eraginkorragoz bete dezaten moldatu beharrak ekarri dute erreforma hori.

Bi dira, funtsean, egitura eta funtzionamendua hobetzeari begira egindako aldaketa garrantzitsuenak: lehenik eta behin, Batzarde Iraunkorra kide gutxiagokoa eta eraginkorragoa izango da Elkarteak abiatu beharreko proiektuei ekitearren eta horietarako bultzatzearen.

Batzorde horrek aurretik bazen Batzarde Akademikoa ordezkaturiko du, eta orain estatutuetan ezagutua izango da. Batzarde Iraun-

kor horretan Saileko Lehendakariak, Batzarde Eragilea eta erakunde sortzaileak ordezkaturik izango dira. Bigarrenik, hainbat aldatetarako lagundu egingo dute zuzendaritza talderako hautagaiak aurkezteko eta hautatzeko sistema hobetzen.

Zuzenketak eta proposamenak

Guztira, banakoek aurkezturiko 44 zuzenketa aztertu zituen Estatutuen Batzardeak, ondokoek osaturikoak: Jon Etxabe (Zuzenbide Saileko Lehendakaria), Itziar Alkorta (Eusko Ikaskuntzako Idazkaria), Gregorio Monreal eta Juan Jose Goirieta de Gandarias (Eusko Ikaskuntzako Lehendakari ohiak), Manuel Uriarte (Arabako Lehendakariorde ohiak). Horien erdiak bideratzeko onartu ziren.

Nafarroako Gobernuak aldatutako proposamenak egin zituen eta

horiek Elkarteko ordezkariak negoziatu zituzten; azkenik, ez ohiko Batzar Nagusiak onartu egin zituen. Saileko Lehendakariak ordezkotzat proposamen bat aurkeztu zuten Batzarde iraunkorrean ematen zitzaien ordezkari buruz. Azkenik, hasierako proposamena onartu zen,

Lehendakariak, bileretara joan ezinean gertatuz gero, beren botoa besteren esku utzi dezaketela adosturik.

Ez ohiko Batzar Nagusiari egindako proposamen guztiak onartu ziren aho batez.



Reformas

Los Estatutos originales de Eusko Ikaskuntza datan de 1918, año de su creación. Desde entonces, han sido objeto de tres reformas en los años 1978, 1991 y 2007.



90
1918-2008

Vida Institucional

Les dernières semaines de l'année furent très intenses : moment pour l'examen de l'exercice sur le point de se terminer et pour annoncer les projets prévus pour l'année 2008 toute proche.

Batzarra Bizkaian

Abenduaren 13an, Bizkaiko Bazkideen Batzarra egin zen Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzan. Bertan, Jon Kortazar, lurralde horretako Lehendakariordeak eta Emilio Xabier Dueñas, Bizkaiko Aholku Batzordeko kideak gauzatzen ari diren jarduerak aurkeztu zituzten eta proiektu berrien berri eman zien bazkideei. Batzarra galde-eskari txanda batez amaitu zen.



Fundaciones

En los últimos días del año, los Patronatos de las Fundaciones Asmoz y Euskomedia de Eusko Ikaskuntza celebraron sus respectivas reuniones como cierre del ejercicio. Se realizó un balance de la actividad anual y se aprobaron, de forma provisional, el plan económico y los proyectos para el 2008. En la foto, reunión del Patronato de Asmoz Fundazioa, celebrada en Donostia.



Ohorezko bazkideak

Abenduko bileran, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrek onartu egin zuen erakundeko Ohorezko Bazkide berri biren izendapena: Benito Lertxundi eta Joxe Joan Gonzalez de Txabari. Batzorde Iraunkorrek arte sormenaren bikaintasuna balioetsi du Orioko abeslariarengan.



Joxe Joan Gonzalez de Txabari Eusko Ikaskuntzako aspaldiko bazkideari dagokionez, sari honen bidez erakundearekiko jarrera beti positiboa aitortzen zaio, bai eta euskal kulturari egindako ekarpena ere. Bazkideen hurrengo Batzar Nagusian egingo da akreditazioak emateko ekitaldia.

Jakiunde: plénière

Le 21 décembre a eu lieu la première séance plénière ordinaire de Jakiunde. Académie des Sciences, des Arts et des Lettres. Son Président, Pedro Miguel Etxenike, communique la nomination de Kepa Bilbao comme Secrétaire et de Sixto Jiménez comme Trésorier. On procéda, entre autres choses, à la constitution de ses organes directeurs : ont été élus les six membres titulaires intégrants de la Table et M^{re} Carmen Gallastegui a été nommée Vice-présidente en second. On a également décidé de créer les commissions de Mission-Vision et Architecture institutionnelle.



Osasun Zientziak

Eusko Ikaskuntzak eta Gipuzkoako Medikuen Elkargoak lankidetzat hartzen bat sinatu dute berriazko lankidetzat proiektuak antolatu eta garatzeari begira ikerketa, irakaskuntza eta jendartzeratzearen alorrean, lerro komun bereziak sustatuz.

Elkarlan hau berehala gauzatzeko da Osasunaz. Cuadernos de Ciencias de la Salud agerkariaren barruan Begiristain Dokorea Sarian irabazle gertatu diren saiakerak argitaratuz. Sari hori euskaraz egindako lanetarako deitzen du urtero Gipuzkoako Medikuen Elkargoak.

Archivos gráficos

El archivo fotográfico de Idiazabal ya es realidad. Tras los trabajos iniciados en setiembre de 2006 consistentes en la recopilación, catalogación, clasificación y digitalización, se ha constituido un fondo histórico con cerca de un millar de imágenes sobre la vida en la localidad del Goierri a todo lo largo del siglo XX.

Con ese mismo objetivo, en Busturia se ha creado una primera base de datos con una pequeña colección de imágenes, y se ha invitado a los vecinos y oriundos a que contribuyan con sus fotos a aumentar dicho fondo.

Sari emateak

La entrega de los premios ENE y Eusko Ikaskuntza-Ville de Bayona dieron ocasión a sendos actos de reconocimiento a instituciones y personas que trabajan por la cultura y la ciencia.

ENE 2007

Abenduaren 26an, Donostian, ENE SARIA 2007 emateari ekin zitzaion. Sari hau, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Eusko Ikaskuntzak urtero ematen dio Euskal Herritik kanpoko erakunde bati euskara sustatzeko egindako lanagatik. Bartzelonako Euskal Etxea saritua izan da aurtengo edizioan, eta Josemari Velez de Mendizabal, Eusko Ikaskuntzako gerentearen eskutik Aitor Arruti erakunde horretako lehendakariak jaso zuen saria: Nestor Basterretxea artistak diseinaturiko anagramaren eskultura erreproduktzioa.

Argazkian: Josemari Velez de Mendizabal, Aitor Arruti eta Euskal Etxeko zenbait kideekin.



Remise à Baiona

En application de la convention signée en 1996 entre la Ville de Bayonne et Eusko Ikaskuntza, pour la huitième année consécutive les prix Culture Basque et Vidéo documentaire ont été remis le 7 décembre dans le grand salon de la mairie de Bayonne en présence de monsieur le député-maire de Bayonne Jean Grenet.

Les lauréats de cette édition, Evelyne Cazemajor, Thomas Pierre et Charles Videgain (de gauche à droite sur la photo), reçurent les prix dans les catégories de vidéo documentaire, prix de Culture basque et prix d'honneur Culture Basque respectivement.



VIII edición

Los Premios Eusko Ikaskuntza-Ciudad de Bayona reconocen los trabajos en investigación y en creación, y premian cada año a una personalidad por su trayectoria.

Jardunaldiak / Jornadas / Journées

2007 tocó a su fin con música: la que puso la Sección correspondiente con una jornada en Barakaldo. Días antes, la Sección de Ciencias de la Salud promovió un encuentro en Donostia.



Música en Barakaldo

Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Barakaldo programaron el 27 de diciembre una conferencia-concierto sobre la personalidad musical de Rodrigo A. de Santiago (1907-1985). El objetivo fue difundir la polifacética figura de este músico, natural de Barakaldo, que fue compositor, director de banda, orquesta y coro, además de académico, profesor e investigador. Impartió la conferencia la musicóloga Ana Calvo Velasco, y el programa musical estuvo integrado por obras interpretadas por tres bandas de txistu.

Salud y DD. HH.

El 10 de diciembre, Día Internacional de los Derechos Humanos, se celebró en el complejo hospitalario Donostia, en San Sebastián, las VII Jornadas Salud y Sociedad, organizadas por la Sección de Ciencias de la Salud de Eusko Ikaskuntza, en torno al tema *Contribución de los profesionales de la salud al respeto de los derechos humanos*. La Jornada reunió a un buen número de estudiantes y de profesionales de la salud que reflexionaron sobre la responsabilidad de proteger los Derechos Humanos.

Jóvenes por el Desarrollo Sostenible

Más de 90 estudiantes de las universidades del País Vasco y Deusto celebraron el 19 diciembre un encuentro de puesta en común de los trabajos sobre Desarrollo Sostenible realizados a partir de último Congreso de Estudios Vascos. El encuentro se enmarca en un plan de participación en proyectos europeos interuniversitarios sobre Desarrollo Sostenible.

Los trabajos han sido dirigidos por los profesores Eduardo Rubio de la UPV y Juan Luis Moragues de la Universidad de Deusto, miembros

ambos del Proyecto Especial Pluridisciplinar de Desarrollo Sostenible de Eusko Ikaskuntza.



Patronato Dr. Begiristain

Se constituyó en 1979 para promover la investigación en euskera en el ámbito de las ciencias médicas.

Bekak / Becas / Bourses

Duela 25 urtetik, Apraiz eta Zumalabe bekek ikerketa sustatzen dute hainbat diziplinatan. Horiei Udalekin hitzarturiko lanaren emaitzak erantzen zaizkie.

Apraiz y Zumalabe

**Hasta el 28 de febrero*

Las disciplinas correspondientes a la convocatoria de la Beca Angel Apraiz para el año 2008 son las relacionadas con Lengua y Literatura, Historia-Geografía y Prehistoria-Arqueología; mientras que la Beca Agustín Zumalabe promoverá las investigaciones en Antropología-Etnografía, Ciencias Sociales y Económicas, Derecho y Medios de Comunicación. Ambas becas tienen una duración de un año y su dotación económica asciende a 6.000 euros brutos.

Los interesados deben presentar antes del 28 de febrero una memoria y su currículum, así como los impresos que encontrarán en la página web de Eusko Ikaskuntza.

Amorebietako argazkiak

**Bilduma egiteko beka*

Amorebieta-Etxanoko Udalak formatu digitaletako argazki artxibo bat eratze-ko proiektua du, bertako oroimen historikoa irudien bidez islatzearen. Hartarako, auzokideei parte hartzea eskatzen zaie beren argazkiak utziz; argazki horiek, behin digitalizatuz gero, atzera itzuliko zaizkie. Eusko Ikaskuntzak izendaturiko bekadun batek burutuko du bilketa lan hau. Horretan interesaturiko pertsonak beren proposamenak aurkez ditzakete.



Nouvelle année, nouvelles Journées

El nuevo curso empieza con dos Jornadas en perspectiva organizadas por las Secciones de Educación y Arte. Mientras, se sigue celebrando un denso programa de actos con motivo del centenario de Pedro Viteri.

Pedagogía Social

**Sección de Educación*

El 14 de febrero en Donostia, la Sección de Educación de Eusko Ikaskuntza celebrará una jornada con el título *Dos experiencias de Pedagogía Social: El Centro Clarita de Laminat de Chile y Loiola Etxea de Donostia*. Se trata de exponer dos experiencias pedagógicas resultado de una respuesta integradora, conducidas por profesionales con un especial sentido de servicio social. Ambas experiencias se ocupan de las terapias y prácticas que ayudan a superar las drogodependencias desde la realidad concreta, y a dar una respuesta educativa y familiar.

EuskoArt 1975-2005

**Donostia: 13-15 mars*

Les VII^{èmes} Journées d'Art seront célébrées du 13 au 15 mars à Donostia : *Révision de l'Art Basque entre 1975 et 2005*. Des spécialistes de prestige prononceront divers discours qui offriront une vision conjointe, accompagnés d'une série de communications afin de faire connaître les travaux de recherche qui s'effectuent en ce moment. Des discours et des communications seront édités au début des Journées dans un numéro spécial de la revue *Ondare*, qui comprendra également une bibliographie actualisée de la période.



1996

Ese año la Sección de Artes Plásticas y Monumentales inició el programa "Revisión del Arte vasco", que culminará en las séptimas Jornadas del próximo mes de marzo.

Irakaskuntza Urnietan

**Jendarteratzeko zikloa*

Abenduaren 12an, Urnietan, Viteri-Azkorte. Eskola eraikuntzaren mendeurena jarduera egitaraua aurkeztu zen, zeina Eusko Ikaskuntzak Urnietako Udalarekin eta Egape ikastolarekin batera antolatua den (argazkian). Egitarau horrek hainbat jarduera hartzen ditu: mahai inguruak, film proiektzioak, iraganeko eskola materialaren erakusketa eta Pedro Viteriri egin beharreko omenaldia, haren heriotzaren mendeurenean.



Gainera, Aitziber Salinas eta Juan Aguirre bazkideek idatzitako *Urnietako irakaskuntzaren historia laburra* liburua aurkeztuko du Eusko Ikaskuntzak.



Liburu berriak

Un travail intéressant sur les prospections pétrolières en Alava et le dernier, et rénové, numéro de la RIEV arrivent ce moins dans nos vitrines de librairies.

Petróleo en Álava

**Monografía*

Con el patrocinio de IKT (Nekazal Ikerketa eta Teknologia), Eusko Ikaskuntza acaba de publicar el libro *La búsqueda del petróleo en Álava*, de Kepa Baquedano. En el territorio histórico de Álava existen más de 100.000 metros de sondeos petrolíferos, algunos de ellos hitos geológicos o energéticos, que sin embargo no se conocen ya que el olvido ganó terreno al no materializarse la búsqueda en pozos fructíferos. Este libro analiza el petróleo desde el punto de vista geológico, histórico y económico, antes de describir pormenorizadamente la importancia de Álava en la trama petrolífera desde finales del siglo XIX a nuestros días.



RIEV, 52,1

**Nuevo número*

El tomo 52, 1 de la *Revista Internacional de los Estudios Vascos* estrena un nuevo diseño, con portada más atractiva y diversas mejoras gráficas. Este número recoge, en su tribuna, un texto sobre el aguardiente y el vino como remedios curativos medievales, de Ricardo Cierbide; Maite Lafourcade escribe sobre la resistencia de los vascos a la penetración del Derecho romano. La RIEV también publica un interesante estudio sobre las empresas de propiedad de trabajadores y otro sobre música, política e ideología en Vizcaya (1876-1914). Por último, Miguel Sánchez-Ostiz presenta un texto autobiográfico con el título *De un damero maldito*.



Girotu Sariak

**Garapen Iraunkorra Unibertsitatean*



EHUKO ikasleak Garapen Iraunkorraren alorrean gaitzeari begira egindako Girotu Kontzertazio Foroaren lehen ikastaroak amaiturik, sariak eman zaizkie "post" edo eztabaida foroetako ekarpen onenei.

Energia Eraginkortasunari buruzko Ikastaroan, Iñigo Azurmendi, Industria Ingeniaría eta Beatriz Mena Diez, Irakasleen Eskolako ikaslea saritu dira. Etxeko Hondarrei buruzko Ikastaroan parte hartu dutenen artean, Zuriñe Alonso Fuente, Artearen Historiako ikasleak eta Bilboko Carlos Javier Martínez de Ilarduya, Industria Ingeniaritzako ikasleak jaso dute saria.

2008ko Egutegia / Calendario para 2008

Urtarrila / Enero

18, Donostia: Eragilea / Ejecutivo

Otsaila / Febrero

15*: Eragilea / Ejecutivo

Martxo / Marzo

14, Baiona: Eragilea eta Iraunkorra / Ejecutivo y Junta Permanente

Apirila / Abril

18*: Eragilea / Ejecutivo

Maiatza / Mayo

16, Donostia: Eragilea / Ejecutivo
31, Donostia: Nagusia / Asamblea

Ekaina / Junio

20, Gasteiz: Eragilea eta Iraunkorra / Ejecutivo y Junta Permanente

Uztaila / Julio

18*: Eragilea / Ejecutivo

Iraila / Septiembre

19*: Eragilea / Ejecutivo

Urria / Octubre

17, Bilbao: Eragilea eta Iraunkorra / Ejecutivo y Junta Permanente

Azaroa / Noviembre

14*: Eragilea / Ejecutivo

Abendua / Diciembre

19, Iruñea: Eragilea eta Iraunkorra / Ejecutivo y Junta Permanente
27, Donostia: Nagusia / Asamblea

* Batzorde Eragileak zehaztu gabe dituen bere bileretako tokia, aurreko batzarrean erabakiko da.

* El lugar de reunión de los Comités Ejecutivos sin definir se decidirá en la reunión anterior.



EUSKO
IKASKUNTZA

90

1918-2008

Enpresa Ekintzailetasuna eta EAEko eraldatze ekonomikoa

Azken hamar urteotan Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) lortutako aurrerapen ekonomikoa nabarmena izan da, bertako biztanleko errentari begiratzen badiogu behintzat. Izan ere, 2008 urte hasiera honetan, EAEko biztanleko errenta Europako batez besteko errentaren gainetik aurkitzen da (% 136 da, hain zuzen), eta datu honek, neurri handi batean lehiakorra den eta ongizate maila altua duen eskualde batean bizi garela adierazten du. Hala ere, oraingo egoera hobetzeko asmoz jarraitzen du gure gizarteak. Egungo ueña trantsizio fasetzat jo ohi dute agintariek eta aditu ugari; ekoizpen efizientzian oinarritutako egitura ekonomiko batetik sormenean eta berrikuntzan oinarritutako egitura ekonomiko baterantz abiatzen ari omen gara. Trantsizioa nola bideratu nahi den ulertzeko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2010 planaren ardatza aztertzea besterik ez dago. Trantsizioa, edo EAEko bigarren eraldatzea delakoa, aurrera bultzatzeko gure gizarteak hainbat elementu behar ditu, eta hauen artean, nire iritziz, enpresa ekintzaileak, beraiek baitira merkatura ideia freskoak eta produktu berriak maiz ekartzen dizkigutenak. Berrikuntza sustatzeko enpresa ekintzaileek eduki dezaketen garrantziaz jabeturik, haien zenbait ezaugarri ezagutzea komenigarria izan daiteke. Alegia, nolakoa da enpresa ekintzailetasunaren osasuna gure erkidegoan?

EAEn hainbat ikerketa lan burutu ondoren, gure enpresa ekintzailetasunaren maila biztanleria helduaren %5-7 bitartean kokatzen dela esan genezake (xehe-tasun gehiagorako honako web orria ikus daiteke: www.gemconsortium.org). Hau da, ehun biztanletatik zazpi, asko jota, ausartuko lirarteke enpresa berri bat sortzera gure eskualdean. Nazioarte mailan, aldagai honen balioa batez beste %7-9koa da. Hala ere, gaur egun herrialde garatu askok, adibidez Finlandia, Suedia, Danimarka, Erresuma Batua, Suitza, Frantzia eta Japonia, EAEko enpresa ekintzailetasunaren ehunekoa baino txikiagoak dituzte, %3-6 bitartean kokatzen direnak. Bestetik, Irlandak (%8,2), Ameriketako Estatu Batuek (%9,6) eta Txinak (%16,4), eta Estatuak zenbait lurraldek (adib., Madril, %7,93; Katalunia, %8,4) enpresa ekintzailetasunerako joera handiagoa azaltzen dute.

EAEn dugun biztanleko errentarako, azken urteotan lortu dugun ekintzailetasun maila ez da kaxkara. Enpresa ekintzailea bilakatzea ez da erraza biztanleria "eroso" bizi den eskualde batean. Arrisku eta lan askotxo darama enpresa berri bat sortzeak, eta ondorioz, enpresa ekintzailea bilakatzea gauza minoritarioa da, bereziki EAEn, non "erosotasun" eta "konplazentzia" dezenterekin bizi garen. Askok galdetzen dugu ea enpresa ekintzailetasunak eskualde baten garapen ekonomikoarekin inongo loturarik ba ote duen. Zer eragiten du zer, eta zein neurritan? Galdera honi erantzun ahal izateko, oraindik ere, zantzu zientifiko garbirik ez dugu. Oraindaino, eskualde bateko biztanleko errentak eta bertako enpresa ekintzailetasun aldagaiak U tankerako erlazioa dutela frogatu ahal izan da. Erlazio horren arabera, ekonomikoki eskualde txiroenetan, eta halaber, zenbait

eskualde garatuenetan, nazioarteko enpresa ekintzailetasunaren maila altuenak aurkituko genituzke. Edonola, pentsa genezake enpresa ekintzailetasun altuaren arrazoiak, enpresa ekintzailetasunaren funtzioa gizaratean, eta hura garatzeko ingurunea, desberdinak direla, noski, maila ekonomiko baten muturrean (eskualde txiroa) eta bestearenean (eskualde garatua).

Ez da guztia kantitate kontua, enpresa ekimenen kalitatea ere aztertu behar baita. Jakin badakigu, enpresa ekimen berri guztiek ez dutela eragin bera gure ekonomian. Artikulatu honen hasieran aipatu bezala, murgilduta gauden trantsizio ekonomiko honetan, enpresa ekintzailetasunak bere zerikusia eduki dezake; bereziki, berritzaileak diren eta atzerriko merkatuei begiratzen dieten tamaina dezente enpresa ekimenak kontuan hartzen baditugu (adib., 5-10etik gorako langile kopurua duten enpresa ekimen sortu berriak). Garai batean gure kostaldetik abiatzen ziren baleontziek antzeko ezaugarriak izan ohi zituzten: euskal baleari gure kostatik Ternuara jarraitzen zioten, baleen koipea argizaria ekoizteko erabiltzen zuten, eta ondoren, Europako hainbat eskualdetan saltzen zuten ekoiztako argizaria etxebizitzetan argia edukitzeko. Itsas gizonen espedizio edo enpresa bakoitzean, tripulazio txukuna eramane ohi zuten baleontzian, teknologia aurreratuak baliatzen ziren (adib., bale arrantatzeko, itsasoan zeuden bitartean beren buruak elikatze-ko, argizaria ekoizteko, etab.), eta beren lanaren emaitza nazioartean saltzen zuten. Balearen arrantza adibidearen bidez, gaurko gure gizarteak eraldatze prozesuan behar dituen hainbat elementu aurki ditzakegu: arriskua hartzeko gaitasuna, berrikuntzarako grina, eta nazioarteko merkataritzarako joera. Egun, urrutiegia joan gabe, gure iraganeko esperientzietatik badugu zer ikasi. Ikasitakoa enpresa ekintzailetasunaren esparruan behar bezala gauzatzea, gure belaunaldi honen ardura izango da.



Iñaki Peña Legazkue

Eusko Ikaskuntzako bazkidea; Global Entrepreneurship Monitor, GEM CAPV-ko zuzendaria; Deustuko Unibertsitateko irakaslea; Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Orkestra.

LIBURUAK

De Cameros a Bilbao. Negocios, familia y nobleza en tiempos de crisis (1770-1834)

ANGULO MORALES, Alberto
UPV: Bilbao, 2007

La correspondencia entre los miembros de varias familias asentadas en un espacio geográfico que supera cualquier límite administrativo (incluyendo tierra de Cameros, Álava, Guipúzcoa, Vizcaya, Santander y Navarra) se convierte en el motor de la historia de un reducido pero influyente grupo de familias vinculadas a la expansión de las ideas ilustradas por el norte peninsular. Este trabajo proyecta el papel de los diversos miembros de este grupo familiar extenso al calor de la profunda transformación que se estaba produciendo entre las últimas décadas del siglo XVIII y las primeras de la siguiente centuria. Individuo y grupo, a través de la correspondencia, conforman una imagen peculiar de las "reglas de conducta" empleadas en el período analizado.



Miguel Martínez de Lecea (1893-1984)

GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan
Tolosa, 2007

El prolífico antropólogo dedica su último libro a una figura destacada del txistu vasco: Miguel Martínez de Lecea, quien fuera director de la Banda Municipal de Tolosa desde 1925 así como director de la Academia Municipal de Txistu. La evocación del instrumentista que alegra las fiestas y solemniza los ritos, lleva a Juan Garmendia Larrañaga a citar las palabras de Pascal: "Quien ha labrado el bienestar de una sola persona, puede afirmar que su existencia no ha sido inútil". Pero, además de esta labor entrañable, el autor destaca en Martínez de Lecea una contribución particular por la cual merece ser recordado: "Sin él, muchas composiciones musicales y no pocos de nuestros números festivos hubiesen caído en la sima oscura del olvido".



Agenda

Urtarrila / Enero / Janvier

- 10: Antzuola. Presentación del estudio sobre Mairuaren Alardea
- 11: Gasteiz. Presentación del libro "Micaela Portilla. In memoriam"
- 18: Donostia: Eragilea / Ejecutivo
- 30: Urnieta. Presentación del libro "Breve historia de la enseñanza en Urnieta: (en el centenario de Pedro Viteri)"

Otsaila / Febrero / Février

- 14: Donostia. Jornada "Dos experiencias de Pedagogía Social: El Centro Clarita de Larminat de Chile y Loiola Etxea de Donostia"

- 15: Eragilea / Ejecutivo
- 28: Fin del plazo de proyectos a las becas Apraiz y Zumalabe
- 26: Donostia: Presentación de Andresare

Martxo / Marzo / Mars

- 13-15: Donostia. VII Jornadas de EuskoArt: Revisión del Arte Vasco entre 1975-2005
- 14: Baiona. Eragilea eta Akademikoa / Ejecutivo y Académica